

## ETIKA PUBLIKOKO BATZORDEA

5/2014 AUZIA

**EZ ONARTZEA (...) LANPOSTUA BETETZEKO EGINDAKO DEIALDI PUBLIKOARI BURUZ ((...) ZUZENDARI GERENTEAREN (...) EBAZPENA) (...) JAUNAK EGINDAKO KONTSULTA, GAI HORREN DIMENSIO SUBJEKTIBOA ETA OBJEKTIBOA ETIKA PUBLIKOAREN BATZORDEARI ESLEITUTAKO EGINBEHARRETIK KANPO DAGOELAKO.**

1.- 2014ko maiatzaren 2an, **interesdunak salaketa bat jarri zuen**, (...) zuzendari nagusiak (...) lanpostua betetzeko emandako ebazpenaren bidez gauzatutako deialdi publikoari buruz.

2.- Salaketan, ziurtatzen zuen deialdian ez zirela bete Etika eta Jokabide Kodearen Printzipioak, baina ez zuen inolako xehetasunik ematen bere iritziz kode hori urratzen zuen jarrera eta jokabideei buruz, eta ez zuen azaltzen nola urratu ziren ere. Horrez gain, ez zuen informaziorik eman kode horri atxikita egonik ere bere iritziz kodea urratu duten pertsonen inguruan.

3.- Etika Publikoko Batzordeak salaketa hori behar besteko zorrotzasunez aztertu eta irizpen bat eman ahal izateko, batzordeko idazkariak **zehatzasun handiagoa** eskatu zuen, idatziz. Honela egin zuen eskaria:

**"HONAKO HAU ESKATZEN DIZUGU:**

1.- Azal iezaguzu zure iritziz zein ekintza zehatzetan urratu den Kode Etikoa zure kontsultan aipatzen den deialdia gauzatzean.

2.- Azal iezaguzu zure iritziz ekintza horiek egin izanak Etika Kodearen zein eduki urratzen dituen.

3.- Adieraz iezaguzu zein diren Kode Etikoaren aplikazio subjektiboaren esparruan sartzen diren pertsonetatik, zure ustez, Kode Etikoa urratzen duten ekintza horiek egin dituztenak."

4.- 2014ko uztailaren 16an, interesdunak **beste idatzi bat bidali zuen**, eta honako hau adierazten zuen aipatutako deialdi publikoari zegokionez:

a) Bere iritziz, izendatutako pertsonak ez ditu betetzen deialdian ezarritako baldintzak, ez delako ageri gutxienez 4 urteko esperientzia duenik.

b) Ez da errespetatu publikotasun-printzipioa, interesdunak ez baititu jakin epaimahaikideen izenak, eta horrek mugatu egin du kide horiek ezesteko zeukan aukera; eta, halaber, ez daki epaimahaiak zer baremo aplikatu duen, baina iruditzen zaio ez dela deialdiko baremoa.

c) Ez dauka merezimenduak oinarrien arabera baloratu dizkiotela ziur jakiteko frogarik.

- d) Iruditzen zaio merezimendu- eta gaitasun-printzipioak urratu egin direla hautaketa-prozesuan.
- e) Ez dauka bere merezimenduak oinarrien arabera baloratu dituztela ziur jakiteko frogarik.
- f) Gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu dio (...) (e)ko zuzendari gerentearen (...) zk.-ko Ebazpenari –zeinaren bidez beste pertsona bat zerbitzuburu izendatzen den aldi baterako, lau urterako, hain zuzen, eta luzatzeko aukera dela–, ebazpen hori baliogabetzat jotzeko edo bertan behera uzteko eskatuz.
- g) Hautaketa-prozesuari buruzko espediente administratiboa bidaltzeko eskatu du, bere defentsa juridikoa behar bezala prestatu ahal izateko.

5.- Azkenik, bere idatziaren hamargarren puntuan, honako hau adierazten du: **"Etika Batzordeak gobernu txartzat eta perbertsio politikotzat jotzen dituen neurri guztiak erakusten ditu"**.

6.- Interesdunak jarritako kexa dela-eta:

- a) Kontatzen dituen gertaerak hautaketa-prozesu batean kokatzen dira, eta, zehazki, prozesu horretan baliatutako prozeduraren legezkotasunari buruzkoak dira; ez da aipatzen, ordea, Etika eta Jokabide Kodea betetzeari lotutako etika publikoko gai zehatzik. Alegia, Etika Publikoaren Batzordeari igorri dizkion bi idatzietako bakar batean ere ez da aipamen zehatzik egiten Etika eta Jokabide Kodea betetzeari buruz; huts-hutsean legezkotasunari dagozkion gaiak bakarrik azaltzen dira. Eta hori hala da, nahiz eta aipamen generikoak egiten zaizkion Etika Publikoaren Batzordeari eta Etika eta Jokabide Kodean jasotako printzipioei –betiere, inolako zehaztasunik gabe eta gertaera zehatzak identifikatu gabe–.
- b) Interesdunak **ez du identifikatzen** bere iritziz Etika eta Jokabide Kodea urratzea dakarten ekintzak egin dituen **kargu publikorik**. Hutsune hori ez da, bada, garrantzirik gabea, kontuan hartzen bada salaketa hautaketa-prozesu baten garapenari buruzkoa dela, eta bai hautespen eta izendapen politikoko langileek bai behin-behineko langileek debekatuta dutela administrazio publikoetan sortzen diren hautaketa-organoetan parte hartzea (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 60. artikulua). Hautaketa-prozesua ebazteko eraturako epaimahaian kargu publikodunik edo parekaturik egon ez bazen, lege debekatuta dagoelako, orduan nekez urratuko ziren haientzat bakarrik aplikatzekoa den kode batean bilduta dauden jokabide-ereduak.
- c) Batzorde honetako idazkariak dagoeneko adierazi zuen hasiera batean bidalitako informazioa zabaltzeko eskatuz igorritako idatzian honako hau: Etika eta Jokabide Kodea –Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28ko bilkuran onartua (2013ko ekainaren 3ko EHAA)–, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio

Orokorreko eta Instituzionaleko kargu publikoei eta behin-behineko langileei aplikatzen zaie, eta ikuspuntu etikoaren arabera lantzen ditu gaiak; administrazioaren jardunen legezotasuna kontrolatzea administrazioari berari dagokio –ofizioz berrikusiz eta errekurtsio administratiboen bidez– eta, beste erremediorik ez bada, justizia-auzitegiei.

Hori guztia dela-eta, Kode Etikoaren Batzordeak honako hau

**ERABAKI DU:**

**Lehenengoa.-** Berriz ere adieraztea interesdunari batzorde honen jardun-esparrua honako ezaugarri hauek biltzen dituzten gai hauek ezagutzea dela soil-soilik:

- a) Esparru subjektiboa: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko kargu publikoei eta behin-behineko langileei eragiten diena.
- b) Esparru objektiboa: Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio eta jokabideen ikuspegitik azaltzen diren gaiak, ez horien legezotasunaren ikuspegitik azaldutakoak.

**Bigarrena.-** Ez onartzea (...) lanpostua betetzeko deialdi publikoari buruz interesdunak egindako kontsulta, ez kontsultaren esparru subjektiboa ez objektiboa ez baitagozkio Etika Publikoko Batzorde honen betebeharrari.



**Etika Publikoko Batzordeko lehendakaria**

**Gasteiz, 2014ko urriaren 2a**